

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du, Julian Etxeberria kalerako aurreikusita dagoen berrurbanizazioa dela-eta, ea arbolaren bat botatzea aurreikusita dagoen.	Berrurbanizazioarekin, berdeztu egingo da kalea inguru horretarako egokiak diren espezieekin. Baliteke dauden arbolaren bat kentzea, Errbaleko bidea Julian Etxeberriarekin bat egitean.
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du, Julian Etxeberria kalerako aurreikusita dagoen berrurbanizazioa dela-eta, ea aparkaleku-plazak kentzea aurreikusita dagoen.	Proiektuak kalearen parte bat oinezkoentzat bihurtzea aurreikusten du, eta, bai, aparkalekuak kendu egingo dira.
Zerbitzuak	Ardantza kaleko 2 zenbakiko bizilagun batek eskatu du arbola guztiak espaloiarekin arrasean landatzeko eta pegora parean dagoen arbola kentzeko.	Espaloi horretako arbolen eta txorkoen kokapenak ez du errespetatzen haietatik fatxadaraino egon behar diren gutxieneko 2 metroak. Hortaz, kendu egin beharko lirateke. Guztiarekin ere, erabaki delikatuak denez, politikoei erabaki beharko dute.
Udaltzaingoa	Herritar batek eskatu du arautu dadila patinete elektrikoaren erabilera; izan ere, askotan espaloitik joaten dira eta arrisku-egoerak eragiten dituzte.	Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera, patinete elektrikoak barne, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legean dago araututa. Arau horren arabera, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek debekatua dute espaloietatik, oinezkoentzako guneetatik, zeharbideetatik, autobideetatik, autobietatik, hiriarteko bideetatik edo hiri-eremuko tuneletatik joatea. Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak behartuta daude trafiko-seinaleak eta semaforoaren arauak errespetatzera. Ezin

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila	Laburpena	
		da pertsona bat baino gehiago joan. Haien abiadura 6 eta 25 km/ordukoa izango da.
Zerbitzuak	Herritar batek galdetu du ea ezagutzen den zein izango den ardoteka aurrean dauden edukiontzien behin batiko kokapena.	Mankomunitatearekin hitz egin ondoren, erabaki da obrak amaitzen direnean eta ingurunea ikusi ondoren, Zerbitzu Sailarekin batera baloratuko dela edukiontzi horiek non jarri.
Obrak	Kexu da trenak Egogain aldean ateratzen duen zaratagatik, eta proposatzen du neurri batzuk hartzeko, harik eta duela hilabete batzuk egindako neurketen emaitzak ezagutu arte.	ETS entitateak egin du zaraten azterlana, eta urte-amaieran egingo dira azterlan horretan Egogainerako eta Ospitalerako jasotako neurri zuzentzaileak.
Zerbitzuak	Eskatu du konpon daitezela San Andres egoitzaren parean dauden bi kutxatila-tapak. Dioenez, tapak loka daude.	Kutxatila horiek sarri konpondu dira; azken konponketa maiatzaren 4an egin da.
Zerbitzuak	Salatu du Ardantzako tunel gaineko parkea oso egoera eskasean dagoela.	Argiztapen, garbiketa eta abar hobetzeko lanean egon dira.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Untzagako estoldak garbitzeko.	Obra Sailari igorri zaio.
Zerbitzuak	Batek salatu du San Andres eliza parean jarri zen arbola ez dela lehen zegoenaren berdina.	Ez da desberdina. Besta arbola bat da, baina espezie berekoa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Batek galdetu du ea zergatik jarri den hodi bat gaztaina-postua jarri ohi den tokian ondoan.	Zerbitzuetako obrako hodi batzuk dira, hutsik daudenak, badaezpada jarri zirenak, Plaza Barria kalea birzolatatu egin zenean.
Udaltzaingoa	Fermin Calbeton 1 zenbakiko bizilagun batek salatu du asteburuetan, taberna inguruetan, zarata handia egoten dela eta jende asko pilatzen dela, eta horrek arkupeetatik igarotzea eragozten duela.	Inguru horretan ostalaritza-establezimenduetako bezeroak pilatzen dira. Ostalaritzako lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen Erregelamenduaren 35. artikulua, 1. puntuan, honako hau dio: "Debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea 23:00etatik aurrera, 37. artikulua 6. paragrafoan aurreikusitako ordutegi orokorraren luzapenen kalterik gabe. Hala ere, udal bakoitzak muga handiagoak ezar ditzake udal-ordenantzaren bidez. Beraz, ordutegi horretan kanpoaldean egiten den kontsumoa baimenduta dago. Udalak bilerak izan ditu establezimendu horietako arduradunekin, arazoa, ahal den neurrian, arindu ahal izateko.
Udaltzaingoa	Herritar batek eskatu du tabernetako edukiera kontrolatzeko.	Edukieraren kontrolari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen Erregelamenduaren 60. artikulua, 1. puntuan, honako hau dio: "Establezimenduetako titularrek eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek neurriak hartu behar dituzte jende-kopuruak

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila Laburpena

baimendutako gehieneko edukiera inoiz ez gainditzea bermatzeko”.

Artikulu bereko 5. puntuan honako hau jasotzen da: "Administrazio eskudunek ausazko neurketa-ikuskapenak egingo dituzte baimendutako gehieneko edukiera ez dela gainditzen egiaztatzeko”.

Udaltzaingoak eskabidea gogoan hartu du.

Udaltzaingoa

Batek salatu du pertsona batzuk bafleekin eta musika oso altu dutela doazela kaletik.

Udalak ez ditu baimentzen “karropoteoa” edo “elektro-txarnaga” erako jarduerak, ez badituzte musikariek zuzenean jotzen.

Udaltzaingoa

Fermin Calbeton 6 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea botiloiak debekatuta dauden.

Herritarren Segurtasunerako Legeak dio debekatuta daudela desordena publikoak eragiten dituzten jarduera guztiak. Beraz, botiloiak debekatuta egongo dira, baldin eta hirugarrenei eragozpenak sortzen badizkiete.

Ganera, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerari buruzko Legearen 53. artikularen 12. puntuak arau-hauste arin gisa definitzen du "Pertsona-taldeek ostalaritzako lokaletatik kanpo eskuratutako edariak edatea kalean edo leku publikoetan, eta elkarretaratze edo edari-kontsumo horren ondorioz leku publikoa erabiltzen dutenei edo auzokoei eragozpenak eragin, inguruaren

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila Laburpena

lasaitasuna asaldatu edo egoera osasun-gaitzak sorrarazi ahal izatea”.

Ostalaritzako lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen Erregelamenduaren 35. artikulua, 1. puntuan, honako hau dio: "Debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea 23:00etatik aurrera, 37. artikulua 6. paragrafoan aurreikusitako ordutegi orokorraren luzapenen kalterik gabe. Hala ere, udal bakoitzak muga handiagoak ezar ditzake udal-ordenantzaren bidez.

Udaltzaingoa Batek kexa adierazi du asteburuetan borroka asko egoten direlako.

Astebukaeretakoa segurtasuna eta gertakariak garrantzizkoak dira Udaltzaingoaentzat. Alderdi horiek hobetzeko, gaueko txanda indartzen da, eta etengabe Ertzaintzaren koordinazioa hobetzeko lan egiten da; horretarako, arduradunekin harreman zuzenean egoten dira eta aldian-aldian bilerak egiten dituzte.

Zerbitzuak Batek salatu du, asteburuetan, erdigunean, txakur-kaka asko eta zikinkeria egoten dela. Dioenez, Txaltxazelaiko eskailerak, esaterako, pixaz beteta egoten dira.

Mankomunitateari abisua pasatu ondoren, jakinarazi digute leku hori asteburuero garbitzen dela. Izan ere, puntu beltz gisa jasota dago. Mankomunitatetik uste dute soluzioa zera litzatekeela: edo eskailerak ixtea edo polizien zaintza handitzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Herritar bat kexu da Fermin Calbeton 6. zenbakiaren atzean dagoen lorategiak, asteburuetan, plastikoz, botilaz, edalontziz eta paperez beteta amaitzen duelako.	Aurreko puntuan bezala: Mankomunitateari abisua pasatu ondoren, jakinarazi digute leku hori asteburuero garbitzen dela ur-mahukarekin. Puntu beltz gisa gehitzen da.
Udaltzaingoa	Batek galdetu du ea bertako bizilagunek gera dezaketen ibilgailua minutu batzuetan zamalanetako tokian.	Zamalanetarako guneak, izenak berak dioen moduan, zamalanetarako bakarrik erabili behar dira, eta bakarrik lan horiek egiteko behar den denboran. Industrialak ez den ibilgailu batekin egiten badira, komeni da alde aurretik Udaltzaingoarekin harremanetan jartzea, eta handik adieraziko zaie nola egin dezaketen.
Udaltzaingoa	Herritar batek, udaltzain batzuen jokaera dela-eta, tratu hobea eskatu du.	Agenteren batek tratu desegokiren bat badu herritarren batekin, Udaltzaingori jakinaraziko dio, gertatutakoa ikertzeko eta, hala badagokio, bidezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko.
Hirigintza	Herritar batek eskatu du Udalak neurriak har ditzala Tas-Tas tabernak dagokion orduan ixteko.	Neurriak hartu dira. Poliziak behin baino gehiagotan zigortu du taberna hau. Beraz, neurriak hartzen dira.
Zerbitzuak	Herritar bat kexu da Mankomunitatea goizegi hasten delako kaleak garbitzen, eta zarata handia sortzen duelako, batez ere haize-makinekin.	Kexa igorri zaio Mankomunitateari. Jakinarazi digutenez, geroago hasiko balira ezingo litzateke garbiketa egin, pertsonak eta ibilgailuak pasatzen direlako. Jakinarazi digutenez, Debabarrena osatzen duten 8 udalerrietatik Eibarren hasten da beranduen. Haizagailuei dagokienez, ezohiko egunetan izan ezik, ez dira goizeko 8ak arte erabiltzen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	San Juan kaleko 5 zenbakiko bizilagun batek salatu du Aldatz tabernak ez duela atea ixten, eta zarata eta musika kanpora ateratzen direla.	Ostalaritza-establezimendu batek eragozpenak sortzen dituela eta araudia urratzen duela egiaztatzen denean, adibidez, ateak irekita musika kanpora pasatzen utziz, eragozpenak sortzen ari direla abisatzen zaie, bidezkoa den salaketa-akta egiten da, eta, hala badagokio, zehapen-espedita bideratzen da. Halakoak atzematen direnean, Udaltzaingoa jakinarazi behar zaizkio.
Hirigintza	Batek eskatu du berriro daitezela ostalaritza-establezimenduen intsonorizazio-lizentziak. Zehazki, kexu da Aldatz tabernaren zaratak San Juan kaleko 5 zenbakiko komunitate osoari eragiten diolako.	Establezimendu batek soinuaren araudia betetzen ez duenean, soinuaren neuketa eskatzen da eta Udaltzaingoa akta egiten du.
Udaltzaingoa	Toribio Etxebarria kaleko bizilagun batek galdetu du ea zer aukera duten herritarrek beren ibilgailuekin sartzeko kale hori oinezkoentzat jarrita dagoenean.	Salbuespeneko kasuetan, hala nola adineko pertsonak edo mugitzeko arazoak dituztenak jasotzea, objektu astunak kargatu edo deskargatu behar izatea..., baimendu egiten da oinezkoentzako guneetan ibilgailuak sartzeko. Horretarako, Udaltzaingoa jakinarazi beharko zaio aurretik, eta haiek adieraziko diote nola egin dezakeen.
Zerbitzuak	Bistaeder kaleko bizilagun bat kexu da kalean dagoen zikinkeria dela-eta, batez ere, edukiontzi inguruetan.	Mankomunitateari abisua pasatu ondoren, jakinarazi digute inguru hori astean 7 egunetan garbitzen dela.
Zerbitzuak	Salatu du arratoiak daudela Bistaeder inguruan.	Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion; hark bidezkoak diren neurriak egin zituen arazoa konpontze aldera.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdigunea 2022/11/22

Saila Laburpena

Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea zergatik eman zaion baimena Ifar kale aurrean dagoen tabernari, terraza zamalanetarako gunean jartzeko.	Zamalanetarako gunean baimentzeko eskaera Hirigintza Sailak baimentzen du, baldintza batzuk betez gero.
Zerbitzuak	Batek eskatu du Mankomunitateko kamioiak kontuz ibiltzeko Katu-Kale taberna parean dauden hondakinen edukiontzia husteko orduan; dioenez, edukiontzien arbolak adarrak kolpatzen dituzte.	Kexa Mankomunitatera bidali da. Erantzun dute kontuz ibiltzen direla, baina ezin izaten dela beti hori egitea saihestu.
Zerbitzuak	Fermin Calbeton kaleko 17 zenbakiko bizilagun batek jakinarazi du etxearen ostean barruko patio bat dutela, latz eta zikinkeriaz bete, eta ezin dutela hura garbitu, ezin direlako bertara sartu. Eskatu du bertakoek giltza bat izatea patioa garbitu ahal izateko.	Kexa uharte-patio pribatu bati dagokio. Gune horretako garbiketa eta mantentzea ez da Udalaren arduraren jabe; jabeek dagokie.